

Joan Perez Lazarragakoren izkribuaren inguruan

XABIER KINTANA*

Joan den urtearen amaieran Borja Aginagaldek Joan Perez Lazarragakoaren eskuizkribua Madrilgo antzinatekari baten dendan aurkitu eta Gipuzkoako Diputazioak, enkantean erosi ondoren, internet bidez euskalari guztien eskuan jarri duenetik, dokumentu horrek biziro iharrotsi dizkigu euskal kulturaren bazterrak. Beraren luzera eta datu aberastasuna kontuan izanik, zalantzarik gabe, oraindik ere zeresanik asko emango ditu luzaro.

1567 inguruan idatzi zen arren, segur da harrezkero ehun orrialdeko izkribu hau esku askotatik ere pasatua dela, eta horietako batzuek, obran bertan agerian dagoenez, jatorrizko testuari beren izen-deiturak, kontuak, abisuak eta era guztietako eranskinak egin dizkiote, diruzain nagusi eta setati batek neskak eskuratzeko zuen iritzi prosaikotik hasi¹ eta dama batekin izandako harremanak aitortu nahi zituen Filipe Ruiz Ibarretakoaren konfesioaren pasarteraino², Lazarragak berak, Etxeparek bere obraren hitzaurrean bezala, adituagoei bere bertsoak zuzentzeko ematen dien baimen-oharrean zehar iraganez³.

Oro har, oinarrizko prosak eta bertso gehienek esku berak eginak dirudite, baina Joan Perez Lazarragaren izenaz gainera, badira beste batzuenak ere, letra estilo ezberdinekin. Halere, argi dago Joan Perezenak direla, zalantzarik

* Euskaltzaina

¹ Honela dio lehen orrialdeko bazterreko eranskinean, bi orrialde geroago eta 1192r-an ere erre-pikaturik: “*Digo yo el tesorero mayor que mas vale un doblon para moças alcançar que en su puerta cantar una muy dulce cancion...*”. Esku berberak, inspirazio hobez antza, hauxe erantsi zuen 1187r-an: “*todo esto no es nada para moças alcanzar / lo mas lindo y donoso es con ellas retoçar / no hay cosa que tanto [h]aga a las damas ablandar! como es el son de dinero que las hasse madurar...*”. Dirudienez, 1166v orrialdean diruzain horrek bere izena aitortzen digu: “*Digo yo martin lopess de Vicuña...*”.

² Ikus 1171r. orrialdean: “*Philipe ruiz dybarreta yo [h]odi a anacho audicanna a diez y 7 dias del mes de julio de este año de seicientos y 7, quando vine de galarreta y fue en el stablo sin dar de comer a los cavallos y por la verdad firme fecha ut supra. Philipe ruiz de Ybarreta*”.

³ “*...para que suplan y corrijan mi ygnorancia...*”. Patri Urkizuk oraintsu atera duen edizioan 1200v-an ageri den ohar hau egilearen aitzinsolas gisa ezarri du. Ikus Joan Perez de Lazarraga, *Dianea & koplak*, Erein, 2004, 73. or.

gabe, obraren hasieran egileak patxadaz, txukun eta garbitan izkiriaturiko orrialdeak, bai eta, presaka eta zirriborro antzean bazterretan geroago idatziriko gehienak ere, kaligrafiaren ezberdintasuna gorabehera, testu guztiak antzeko morfologia eta grafiaz agertzen zaizkigunez gero.

Ez da hori gertatzen, ordea, erdarazko poema batzuetan, ez eta azken sei orrialdeetan ere, hor, grafia askoz zaluagoa agertzeaz gainera, erabiltzen den euskara bera, mendebaldekoa izanik ere (*erurra*, *-gaiti*, *gara*, *irargui*, *santea*, *sei* ‘haur’...) arras bestelakoa baita (*naiz*, *goiz* baitakar hasierako *nax*, *gox* ohikoan ordez, eta *dot* edo *deut*-en lekuan *det*, *barri* barik *berri*), hots, ekialde-ragoko berbak eta moduak tartekaturik azaltzen zaizkigu, beste idazle batek eginak balira bezala. Litekeena da, dena den, guztiak Lazarragarenak izatea, bigarren hauek Gipuzkoa aldeko euskaldunekin harreman handiagoa izan ondoren, edota adinez zaharragoa zenean, agian hor aipatzen dituen hirietatik ibili eta gero idatziak. Ez dugu ahantzi behar, Joan Perez oso gaztea zela bertso horietako batzuk idatzi zituenean, eta, maiteen izenak zifratzeko jorak nerabe arteko joko hutsetan zebilela nabarmentzeko nahikoa ez balitz, holaxe aitortzen digu berak poema batean: “*çegaiti nax ni gaztea / oy orain-gaño ez nax ni eldu / oy bada oguei urtean*” (1196r). Baina puntu hau paleografoek, historialariek eta bestelako adituek argitu beharko digute⁴.

Idazkiaren kalitateari dagokionez, begien bistan dago Joan Perez Lazarragakoa, goi mailatik urrun egon arren, bertsoan trebeagoa dela prosagintzan baino. Izan ere, poemak idaztean arabarrak bazituen, garai hartako erdal poesiak eskaintzen zizkion gai eta baliabide estilistikoez gainera, lehenagoko euskal bertso-gintzaren tradizio luzea ere. Hor dira, adibidez, azken orrialdeetan papereratzen digun *ytai lelo ybai lelo echean aray leloa*, Etxepareren eta Leloren kantuko zantzo garbiak, edota 1203vko “*Asper çe çatez / jentea negarr eguitez / ycara jabilt / lau laurenoc bildurrez / arren nançuçu / Jaun cerucoaen amorez*” bertso horiek, aurreko mendean, 1464 aldean, banderizoen borroketan Martin Bañez Artazubiagakoaren erailketagatik eginiko kanta ezagunaren aierudunak: “*Oñetaco lur au jabilt icara, / lau aragioc vere an verala...*”⁵.

Bereziki aipatzekoa da, daukan tankera tradizionalagatik 1165r-ko azken koplatoaren hasiera: *Urtan eder arria / aen gañean choria...* Nikolas Ormaetxea “Orixe”k, herri-iturri beretik jaso eta bere *Euskaldunak* poeman Eguberriko herri-bertsoen artean txertatua: “*Askan eder garia laren gaiñean txoria / eraztun batek bildu lezake / neskatxa, zure gerria*”, eta azken aurreko orrialdean ageri den beste hau: *Mendi altuan erur[r]a dago / aran baxuan eguzqui / mendi-aran gustiac baino / ene coytaoc naguci (sic)*, bai eta koadernoan amaitzen denekoa ere: *Lecu ona Bicuña / Soloan soloan muyña / edoçeynec gura leuque / angoa bere suyña*.

Era bereko herri-kutsua daukate, Bereterretxeren eresiaren *Haltzak ez du bihotzik* edota Beotibarko kantuaeren *Mila urte igarota* hasiera klasikoen bitetik, naturarekiko konparazioekin hasten direlako, 1153v-ren behe bazterreko bertso biok ere *Udabarri guztiz aleguerea, maiazeco lora ederraena, / çe indazu beti oneinbat pena; Gau ilun onetan eguiçu argi / irargi zuria eta ederra, / rendiduric nago çe beguit guerra*. Gauza bera esan daiteke honelako errepi-

⁴ Ikus, adibidez Pruden Gartzia Berria egunkarian argitaraturiko *Larrea Burgos baino hobea, Tolledoren kidea* (I eta II) artikulua, 2004ko apirilaren 8 eta 9 egunetan.

⁵ Ikus Luis MITXELENA, *Textos arcaicos vascos*, Ed. Minotauro, Madrid, 1964, 91. orr.

kapenengatik ere: *ene laztanac guraric / ene laztanac guraric eta / neurc ala trabajaduric* (1181r).

Prosari dagokionez, ordea, gaztelaniazko artzain-eleberrietatik, Jorge de Montemayor-en *Diana*-tik bereziki, jasoriko iradokizunak gora behera, oro har, gordin xamarra da, errepikakor eta bereziki landu gabea, euskarak oraindik ibili gabe zuen bide berri horretan abiatzean egileak tradizioz ezaren oztopo gaindigaitzak etengabe aurkitzen balitu bezala. Sintomatikoa da, halaber, poemen goiburuak eta azalpenak prosaz idaztean, Lazarraga behin eta berriro, eta segur aski konturatzeke, erdarara lerratzea.

Lexikoan erabiltzen dituen erdarakada ugariak direla eta, alde batetik bereizi beharko genituzke, gaurko irizpide garbizaleak gora behera, orduko euskararen erabat normalak izaten ziren maileguak (*abantaja, adarga, cobru, cota, calça, curello* 'krudelki', *donçella, dulce, dulçero, enojadu* (cfr. Etx. *enojatu*), *estudiadu, faisae, fortuna, gorguera, grillu* 'burdinazko lokailua', *gustadu, justa, librero* 'libreki', *matalot, saboiana, tabardo*...); bestetik, garaiko erdal idazle gehienentzera, esku-beteka hartzen dituen kultismoak, latinetikoak batez ere, dotoretasun- eta jakituri seinale gisa aldizka tartekatua, hizkuntza aberasteko asmoz (*amazona, açeptadu, colaçio, floresta, jardin, metrificadu, pelicano, poridade, prolixidade, unicornio*...), eta azkenean, gaurko euskara mintzatuan bezala (*es que, guapo, majo, segun*...) gaztelaniatik zuzenean jasoriko erdarakada gordinak, kasu batzuetan agian bere herrian ezezagunak ziren euskal ordain jatorragoen orde *aunquestos, claramente, desmaiadu, enterradu, flauta, flordelis, lindadama, llaga, pueblo popularea, poniente, queridu, rede* 'sarea', *solamente* (cfr. Leiz. *solament*).

Baina literatur balioak eta iturriak hurrengo baterako utzita, aitor dezagun ugari eta askotarikoak ditugula izkribu honetako altxorak, eta, neurri handiz, orain arte euskara zaharraz hor-han-hemenka sakabanaturik genituen datu apurrak obra bakarrean bildurik ageri zaizkigula, elkarren arteko loturak eta, hobeki erakutsiz. Horregatik ez dira erraz agortuko honi buruz egin beharreko azterketak.

Alde batetik, mendebaldeko euskarari buruzko ikuspegia oparo osatzen digu: lehendik batez ere 1596eko RySko euskaragatik genekizkien hitz asko, hemen errepikatu eta esanguraz berretsirik agertzen zaizkigu: *ançitu* 'ahantzi' *eçe eç a ançituta biçi jçan* (1152v), *apucadu, bear* 'errua' (*ene bearra da, ezta çurea* (1193v); *Oy, çu ederra yçan ez arren, nic ez daucat bearric* (1201r), *eben* 'hemen', *eguçari* 'jaia', *palagadu, sagara*, bai eta orain arte mendebaldeko euskararen aurkitu gabekoren batzuk ere, *agitz* eta *anitz* adibidez, *aguiz* eta *anech/anez* grafiez papereratuak: *Ain aguiz eçe Silvia ysasi ez ballaco ez çatean miracuru an yla* (1143r); *aguiz emuten leustela* (1158v) *çeuere aoan doçu aguiri / anez doçuna quilçaric* (1201r); *bioçau jo deustaçu anech flechaz* (1185r), eta azken honek ekialdeko eta mendebaldeko aldaeren iturri datekeen **aneitz* gisako etimora garamatza, *esporçu, fortiç, goganbear, sarri* 'laster', *zilegui* ...⁶. Ha-

⁶ Dena den, gogoan izan behar da Joan Bautista Gamiz-en XVIII.mendeko *dabiltzentxoetan* "anitz urte osasunaquin" dakarrela, hitz hori, berak darabiltzan *mintzatu* edo *fite* bezala erdi- edo ekialdeko euskalkietatik jaso zezakeen arren, *elur, barkatu, beltz, berriz, naiz, zera*... formak ere ez baitira Araban espero izatekoak.

lere, autoreak *biguela* erdal mailegu gordina dakarkigu eta ez *biola*, Deba arroko lehenagoko kanta zaharretan agertzen zena⁷.

Hortxe ageri zaigu, halaber, *beste* adjektiboaren erabilera zaharra, izenaren ondoan, *Etxebeste*, *Etxeberze* deituretan fosildua: *escu bestean* (1181r), *jaunac ez digun / oy ta gaztigu besteric* (= ‘beste gaztigurik’) (1203r), *biçi beste bat artuco doçu* (1174v), bai eta *asko* adberbioa aurretik jarria, iparraldean gaur eskuarki gertatzen den arren, hegoaldean bitxi samarra: *asco dauco minic* (1145r); *joan ninčan da ecusi neben/ asco donzella galantic* (1159v); *asco deusut esquerric* (1181r), *nic aregayti iragaro dot / munduan asco penaric* (1181v); *oy guiçon batec / erregue baten enojadu lenojadu ta / asco maneraz afrontadu* (1198r).

Gauza bera gertatzen da *bakoitz* hitzarekin ere, iparraldean gutxienez Leizarragaren garaitik dokumentatzen den ‘bakar’ esanguran, Iruñeko Etxabakoitz deritzon auzotegi ezagunean bezala, Bizkaiko *Artebakarra* toponimoan antzeko esangurakidea izanik: *non Silvero gueratu çidin bacoçhic* (1143v); *se-me bacocha naiz* (1144r)...

Beste arkaismo bat, Bizkaiko leku batzuetan XIX. mendera arte kontserbatua, –adibidez, Frai Bartolomenen idazlanetan edota Valentin Berriotoxakoak bere gurasoei Elorriora bidaliriko gutunak–, *dozu* gisako adizkerak pluraleko bigarren pertsonarako erabiltzea da: *çuec jaquingo dozu, arçai nobleac, eze ni nazala marsellaco naturale eta ene yçena da clarian.* (1147v); *çuec bere libertaduco çara* (1158v); *ez daquiçunoc jaquin eguiçu / ez çaoz engañaduric* (1181v); *Arren choriac exilic çaoz / badoçu miramenturic / mundu guztia ysasogaz / nançuçu, çaoz gueldiric* (1175v).

Era berean, *-rean* elatibo zaharra ere, beste inon baino sarriago ageri zaigu, adibidez:

urten eben bere camararean (1143v); *ni onerean* (=‘hemendik’) *banoa bere / ene bioça cuc doçu* (1146v); *eta egoan lecurean jaguiric joan çidin floresta bateti aurrera* (1148r); *Enojuzco verba oec Silviac bere Doridoren aorean ençunic çidin desmayaduric lurrera jausi* (1152v); *beguioc espilurean quendu..*(1153v); *arrdao çuri San Martingoa / picherraz yturriean* (1196r).

Mendebalde eta erdialdeko euskalkietan ezagunagoa den *batzuk* formaren ordezkialdean oraindik bizirik dirauen *batzu* era zaharra darabil: *arrçaien jazteco baçu* (1146v); *cantaetaz etoçela guiçon baçu* (1154v); *urregorriczo letra baçugaz* (1159r), hor *urkizu*, *mukizu* bezalako eratorrietan aurkitzen dugun –*zu* atzizkia agertuz: *bat + zu*.

Erlatibozko esaldietan *zein* eta *non* eskuarki darabiltza, ekialdeko autoretan bezala, bai eta *eze* partikula ere, ondoren –*la*-rekin datorren menpeko esaldiaren aitzindari: *...çeinçuc esan eusaen baiez* (1144r); *Joan çidin bere esera nun asi çan bere erropaac contuz maleta baten sarçaen çegaiti esan eusan ugaçabac ece biaramunean joango çireala euren biajera çeña çan ytaliaco çiu-dade batera, çeñari ereiçan Arçileo* (1145r).

Donemiliaga Kukulako glosa zaharretan bezala *guek* erabiltzen du, Azkuek bere garaian Zigoitia aldean oraindik bizirik aurkitua: *Yc jaquingo doc eçe guek goaçela* (1147r); *guek al daigun lagundasunic onaena eguingo deusugu* (1147v); *Edo bestela çuec eta guec* (1158v).

⁷ Gogoan izan, adibidez Gomez Gonzalez-en hilketaren kanta ezaguna: *Gomez handia izan arren / han zan, Presebal bere, / bai Joanikote bere; / Madalenan ei dautza/ biola-tronpeta bage.*

Bide berean, lehenik jakinak baziren ere, hemen ezin ugariagoak dira ze partikularen adibideak, 'ez' esanguraz, beti agintaldiko ezezko esaldiekin, segur aski behialako *eze zaharraren arrasto: *Jaicoari* (sic) *nai çe daquiola* (1148v); *Silviac Doridoren bervaoc adituric esan eusan: Esan çe eguidaçu berva oriec...* (1152v); *Jente noblea / çe daidiçu pensadu* (1169v); *çe besat orrelacoric* (1171r); *çe begi alferr promesic* (1182r), *çe beroaque lagunic ... çe begui sentimenturic* (1182v).

Sintaxiari dagokionez, bestalde, ezezko esaldietan partizipioa ez da nahitaez azkenean ezartzen, gaurko euskarari ohi den bezala: *eriotztea / sentiçen ez dot bapere* (1144v); *biçico çala uste ez eben* (1145r); *neure biçian ecusi ez dot / ayn gauça abisaduric* (1170v); *secula goardaetan eztau* (1184r); *çegaiti beguiratu gura ez doçu* (1185r); *zerren nic çuri eman eztiçut / artaco ocasiorik* (1195r). Halere, gogoan izan ordena hori oraindik normala izaten dela esaldi konpletibo eta erlatiboetan: *etorri ez denean, joan ez garelako, egin ez duzun lana...*

Azkenik, azpimarratzekoa da menpeko esaldi konpletiboetan, hirugarren pertsonako aditzak daraman *l*-aurrizkia, lehenago *Frai Bizentek esala, / fedea zina lizala* bezalakoetan lehenago bakanki aurkitua: *erregutu eusan bere emazteari eugui leguijala contu andia Silverori bear ebena emaitiaz* (1142r); *eçe erre-gutu eusan Silviari leguiola ain mesede andia (...) prometidu eusan eçe biaramunean sin falta sirena eroango leutsala bere aposentura* (1142v); *Silviac uste eben eçe escuarrtean ylgo liçatela (...) Bada bere ecusiric Silveroc ain cruelmente bere sirenac trataetan lebela, ez eben gura ynorc bervarik leguion* (1143r); *Eta uste euen çe Sirena eta Silvia eroan euenac letoçela aec eroatera* (1153r).

Esan denez, euskara mota, zalantzarik gabe mendebaldekoa da, baina Arabakoa izan arren, ez dator beti bat Landucchiok Gasteiz inguruan bildu omen zuen ereduarekin, haren *baiquetan dut*-en argitan, ezustekoa baita ekialderago ia beti *dot* aurkitzea. Halere, salbuespen gisa bada ere, inoiz *dut* ere erabili zuen: *eçin sinistu dut neure Sirenaen aldean nagoala* (1152r); eta *det* eta *deut* ere bai, azken hau Joanes Etxeberri Sarakoaren lanetan ere aurkitua.

Beste ezaugarri bat aditz iragankorrek objektu pluralekin nahitaez komunztadura ez egitea da: *quendu eben beren jaztecoac* 1147r; *Ezquerecochan oy darabilte / pensamentuac galduric* 1159v; *nic çu çaut adietan* 1186v, eta fenomeno hau hegoalderago ere Juan Bautista Gamizen euskarari nabarmentzen da, gaur Oñati aldean gertatzen denez, non, Aramaiorekin batera, agian Arabako euskara horren azken lekukotasunak gordetzen diren. Dena den, pluralaren nahitaezko komunztaduraren arazo honi geroago ekingo diogu.

Nolabait, Lazarragaren euskara, mendebalde eta ekialde arteko euskalkien iraganbidean aurkitzen zen, batzuen eta besteen arteko zubi gisa. Alde horretatik Sakanako haran luzeak Arabako, Bizkaialdeko, Deba garaiko, Gipuzkoaldeko (Altsasuren irtenbidetik) eta Nafarroa Garaiko dialektoen arteko harremanetarako bide geografiko naturala izan da beti, eta alde horretatik Lazarraga XVI. mendean eragin ezberdin horien ondorioz bertako euskara nolakoa zen erakusteko lekuko aparta dugu, eta arreta handiz aztertzekoa⁸.

Gaurko euskalkien egoera eta finkapena kontuan harturik, harritzekoa da, neurri baten bederen, autore berberak *naiz, naz* zein *nax, deusut* zein *dizut* tan-

⁸ Ez dezagun ahanztz, bestalde, toki hori, Sant Adriango pasabidearen ondoan dagoela eta, beraz, bidaiariak eskuarki erabili beharreko bidean.

kerako adizkerak txandaka erabiltzea, garai eta toki hartako euskaran aditz laguntzaileetan aukerako alternantzia hori erabat libre eta finkatu gabea izan baltz bezala, egungo erdarazko *hubiera/hubiese* moduan. Alternantzia bera aurkitzen dugu hurrengo mendearen amaieran ere Sabandon jaiotako Juan Bautista Gamiz-en poematxoetan ere: *dut, deut, det*.

Baditu *derautsut* erakoak ere, baina dirudienez, horiek faktitibo balioaz zerabiltzan: *çegaiti lauoi bardin on erechi / ez derausteçu euren amoreetan* (1145v); *ez deraustae besteric ateraco / salbo bay çaytudala amaetan* (1194v); *oy, aserratu deraustaçu / çeurorrec ala guraric* (1201r). Edonola ere, Lazarragaren testuan ez da behin ere agertzen *dodaz, dozuz, ebezan* gisako adizkera berririk, antzinako erro komuneko *ditut, dituzu, zituen* sailekoak baizik. Bestalde, *nola* galdetzailea da haren testuan agertzen den bakarra, Mikoletak Bilboko euskaran aurkezten zizun *nolan* bezala, gaurko mendebaldeko *zela(n)* oraindik hain hedatua ez zegoela erakutsiz.

Oro har, Lazarragaren testua euskara zaharrak zeukan funtsezko lexiko hedatu aberatsaren lekuko bikaina dugu, gure hizkuntzaren behialako batasunaren ondare amankomuna oraindik erabat hautsia ez zelako, segur aski muga politikoaren gainetik alde bateko eta besteko euskaldunen artean tratu-harremanak oraindik ugariak eta etengabeak zirelako. Ondo kontuan hartzekoak dira, halaber, inguruko eta urruneko toponimiaz dakartzan datuak ere: *Araba, Barrundia, Langarica, Salbaterra, Gebara* (sic) (*gaztelu gebaracoan gara / gu biçi defendiduric*, 1159r), *Donostia, Guipuscoa, Nafarroa, Gaztela, Francia, Burgus, Barcelona, Toledo, Sibilía, Genoa, Florencia, Napol* (sic), *Calabria, Lombardia* (sic)...). Ez dira falta, halaber, pertsona eta santu-izenak ere: *Catelinacho* (1171v), *Loral/Flora* (1179r), *Martin* (1179r), *Pericho* (1180v), *Anton* (1180v), *Joan lopez jauna çuaçuco* (1180r), *Jandoneane* (1170v), *San franciscu* (1193v)...

Bera da, bestalde, *Euskal Herria* izena lehenbiziko aldiz aipatzen digun idazle ezaguna, *loa de las damas y galanes bascongados* poeman *Euskel Erria* hirutan eskaintzen du eta (1169r-v).

Garai hartako historiari dagokionez, beste datu interesgarri bat aurkitzen dugu: *aide andioc* (1195v), segur aski orduko erdaraz '*parientes mayores*' deitzen zena izendatzeko, gaur eskuarki *ahaide nagusiak* esaten dugunaren eta agian Mitxelenak *ugazaba* hitzari garai hartarako susmatzen zion esangura horren kaltean.

Ondoren, obran ageri diren beste ezaugarri nabarmen batzuk azpimarratzera iraganen naiz.

-xe atzizkia Joan Perez Lazarragakoaren izkribuan

Guztiok dakigunez, euskara modernoan *-xe* atzizkia erakusleen, aditzondoan eta funtsean izaera adverbiala daukaten beste hitz batzuetan agertzen zaigu, horien esanguraren indargarri gisa: *hauxe, horixe, harexek, hauexek, honatxe, horrexegatik, gehixeago, geroxeago...*, inoiz kontsonante ondoan *-txe* bilakatu: *hementxe, hortxe, hantxe, oraintxe...*

Pierre Lafittek, bere *Grammaire Basque-n*⁹ ordea, ekialdeko tradizioa ere eskaintzen digu, galdetzaileak (*nolaxe, nolakoxea, nontxe...*), partizipioak

⁹ Pierre LAFITTE, *Grammaire Basque. Navarro-Labourdin littéraire*, Ed. rev. et corr. Elkar, Donostia, 1979, 148. or.

(*egintxea, zaharkituxea, hasixea...*) eta *-ago, -en* eta *-egi* atzizkidun hitzak eskainiz (*geroxeago, handixeago, luzexeena, handixegia...*).

Lazarragaren obra irakurtzean, ordea, *-xe* atzizkia gaurko ohiko funtzioez gainera, bestelako kokaera eta zereginetan ere aurkitzen dugu, ondoko adibideetan ikus dezakegunez:

goitixeago ecusi neben (1159r); *gueldixe* (1160r); *claruxeago berva eguiçu* (1171r), *arrezkero Jaun çerucoac / bercheac daqui bacarric* (1171v); *Ene lazta-na solas daigun / geurcheoc bioc bacarric* (1172r); *Ychi neusan beruaxeoc* (1172v); *liçençiea arren yndaçu / badoçu borondateric / daquidancheau esate-raco. / Ez eguin beste gauçaric; gauçaxe batec oy ta nauco / andiro enojaduric* (1175v); *oy badabere biçi oy nax / jaun çerucoac guraric / ciudadecho chiquirr batean / neurrcheau bacarr bacarric* (1177r); *gueixeago esango neben / eugui baneu astiric* (1177v); *presentexeak emun beguioçuzpirioxe garraz pi* (1182r); *esecoxeoc beti barrez / oraingaño gazte ax ta / urtexe baten goza adi* (1190r); *oy onegaiti ychacen begui / dozenaxe bat urtean* (1196v); *ameac leyque açeptadu erreguxeau* (1198r); *Peru Errochec asco dauco / esean seme galantic. / Areanche bat oy al badoçu / bila çe çatez besteric* (1201v); *bobedaxeoc / ychi dau euroc bacarric / çerren ez dago / norc socorridu jenteric* (1202v); *guztiay oñac gar-bitu eusten / bercheac umilladuric* (1203v).

Horietako asko (*berbaxeoc, dakidantxeau, gauzaxe, presentexeak, zuzpirioxe, etsekoxeoc, dozenatxe, erreguxeau, bobedaxeoc, urtexe*) izenak ditugu, edota izenduriko adizkerak. Horien esangurari dagokionez, testuinguruak argi eta garbi erakusten digu guztiotan *-xe* horrek balio txikikari edo hipokoristikoa duela, gure ohiko *-txo*-ren antzera. Izan ere, *presentexeak* formak badi *-txo*-dun kidea ere: *oy bada bere presentechoau lartu eguiçu niganic* (1175v).

Bestalde, *neurtxe* eta *bertxe* izenordainek ere, gaur ez bezala, *-xe* atzizkia har zezaketela ageri da, bai eta *klaruxeago, gehixeago* eta *areantxe* adberbioek ere, hauek gaurko euskaldunon belarrietarako askoz ere hurbilago eta onargarriagoak diren arren.

Datuon argitan, begien bistan dago Lazarragaren denborako eta tokiko euskaran behintzat, *-xe* atzizkiak balio hipokoristikoa hutsa zuela, eta berdin erants zekiekeela izenei zein gainerako hitzei ere. Gaur egungo erabileraren murrizketa ikusita, ondorio logikoa hauze litzateke, antzina *-xe* atzizkiaren erabilera egun baino askoz ere hedatuagoa zegoela gure hizkuntzan, baina denbora pasa ahala, segur aski funtzio berbera zuten *-to, -txo, -sko, -ska* moduko atzizkiekiko lehia-kidetzan, pixkanaka, erakusle eta leku-denboretako aditzondoetarako bereizi zela, ohiko txikikari-funtzioa aipaturiko beste atzizki horiei erabat utzirik.

Formari bagagozkio, gainera, *zahar* izenondoak aldean *-zar, -tzar* aldearrek handikari-atzizki balioarekin dituela kontuan izanda, *-xe* atzizki hau ere, itxura eta esanguraren arabera, *xeh*e hitzaren forma laburtua besterik ez dela ematen du, bigarren silabatik aurrera euskaraz aspirazioa galtzen delako lege jakinak horretaturik¹⁰.

¹⁰ Patxi Salaberrik gogorarazi didanez, Erdi Aroan *-xe* atzizkia antroponimoetan ere maiz ageri da, eta Akitanian *-se(n)* eta *-xe* ere dokumentatzen dira: *Andereseni* (dat.), *Hautense, Uriaxe...* Erdi Aro aldean *-xe*, Lazarragaren testuan ageri denez, *-txo*-ren baliokidea bazen, izan daiteke pertsona-izenen atzizki horrek ere jatorri berbera izatea. Litekeena da, bestalde, Akitaniako antroponimoen atzizkia ere hor sartzea, euskara zaharrerako gaurko *xeh*-ri **sene* gisako etimoa onartuz gero bederen, 'haur' eta 'txiki' arteko kontzeptuen hurbiltasun semantikoagatik, agian *seni*-rekin lotua (Cfr. esp. *niños, pequeños, gente menuda*; fr. *enfants, petits...*), baina hau frogatzeko aski daturik ez dugu gaurkoz.

Linschmann-Aresti legea Lazarragarengan

Arabako testu hau irakurri bezain laster, berehala kontura gaitzke autoreak posesiboetan *ene/neure*, *zure/zeure*, *a(r)en/bere* moduko alternantziak edonon egiten dituela. Horietan, Etxeparek eta Leizarragak singularreko formekin eta Axularrek bai eta pluralekoekin ere egiten duen bezala, forma indartuek posesibo horri dagokion pertsona aditzean agertzen dela seinatzen dute, ergatibo, datibo zein objektu gisa, hau da, bihurkari edo erreflexibo zerreginean¹¹.

Hona hemen aurkitu ditugun adibide batzuk:

Ene /neure

eta ain da nic deusadan amorioa andia eçe neure erriari ychiric nator aen esque (1147v); *Oi sirena, çegaiti çatoz / oy eta ene açean* (1151v); *Ene peneau oneyn andia dan azquero* (1152r); *Ene desdicheonen causea y axan azquero* (1152v); *Ene lastanchoa / arren esaçu*(1168v); *ene bearra da, ezta çurea* (1193v).

quen aquit neure beguietatic (1152v); *neure buruau erraz daidit / nic dichosaçat edugui..* (1170v); *oy eta ez dot abajaduco / neure biçian punturic / çure bervaoc adietaco* (1171r); *neure peneau esan bear dot* (1171v); *neure beguioc goratu neben* (1171v); *neure biçian ecusi ez dot / ayn gauça abisaduric* (1170v); *neure buruau erraz daidit / nic dichosaçat edugui* (1170v); *Oy neure bioz amoroau / ydogui çidan bertati* (1181r).

Zure / zeure

çegaiti alegriaric ez da / munduan çure pareric (1164r); *çegaiti Jaunac eguin ez naben / çure contentamentuco* (1164r); *çure beguioc necusenean* (1164r); *çure mutil ninçan* (1168v); *oy, bear doçu ycasi / çure amarez, ene lastana / nola nagoan geldiric* (1170r); *alabaçen dot çeruan Jauna / bide dodana eguinic / çegaiti naben çuregaz batu / lindea eben bacarric.* (1170v); *çure beguioc ecusizquero / banago catigaturic* (1171r); *Ene lastana çure beldur max* (1171r); *Bestela bere nigan ez dago / çurea ez dan gauçaric / çure içenaz oy ta daucat /guztiac señaladuric* (1184r).

çeure beguiocaz ecusi doçun artean (1152v); *ynoen beldur gaba/arren esaçu / çeure pensamentuan/çer daducaçun* (1165v); *çeure eseco portaleetan / oi ta çetorçen jarriric...* (1171v); *nola eriçun çeure içenaz* (1171v); *esaçu çeure ventu-rea* (1182r); *ene guztiau çeure eguin eguiçu* (1185v).

Haren / bere

Aren açean joateco / da liçençia escatu (1141r); *Neure erriari ychiric nator aen esque* (1141v); *Eoçen begui ederric asco / aren aldean jarriric* (1159r); *Urtan eder arrial aen gañean choria / Amorian lequidanarilatera neio beguiac* (1165r); *Aen yçena letna onetan / dago rrelataduric* (1178r).

Eta ala tristeza andiaz Silvero joan çan bere aposentura (1142r); *bere can- taetea sirenac acabaduric urten eben ain lasterr Silvero egoan lecurean* (1143r);

¹¹ Ikus X. KINTANA "Posesiboak idazle zaharretan" in *Fontes Linguae Vasconum*, 1971, 7. zkia, 75-79. orr.

acabaduric leen esan dogun cantaeteau silvero eta bere lagunac joan zitezen çiu-dadera (1144v); Eta ala egun baten bere ugaçabari liçençia escatu jacan (1146r); despediduric bada silvero bere sirenaganic (1146v); çegayti ez dau amorioac / bere flecheaz iregui (1159v).

Gurel/ geure

Çegayti ezton losaric berva oriec esaten gure aurean (1152v); Gura deusut aguindu / gure errico abanytajoac / daiqueçula cantadu (1169r); Yguzquiaren aldean dago / gure onrrea jarriric / geure açean guc darabilgu / mundua catigaturic (1152v).

Zuen/zeuen

*çuen arteco donçella batec / nauco enterraduric (1178r).
ez bildurric çeuren bioçetan artu (1153r).*

Haien / euren

Eta dorido (sic) ençun euen aen alderuç cantaetaz etoçela guiçon baçu (1154v); çeynçuen erditan etoçen sirena ta silvia soca bategaz escu delicaduac loturic lepora euren guardaçat sey salvaje aldeetati ecartela çenac pregonaetan eben narbaezec aen contra emun eben sentençiea... (1153v): Doristeoc eta sirenac equin even euren byajea (1152r); Jaicoac daqui çe aseguin guchi euren bioçetan artu euen (1154v); remedioa bila çiteçen / eurençat gora costaric (1179v).

Ondo ageri denez, bihurkari edo erreflexiboen erabilera eskuarki oso zehazki betetzen duen arren, Lazarragak badu lapsusik ere: *ene faltaoc / estaliko det...* (1165v); *Ene bervaoc jende noblea / çe daidiçu pensadu / neure erria alabaçerren / nic ditudala fingidu* (1169v).

Gogoratu behar da, garai hartako eta euskalki kide bateko beste autoreak aipatzearren, Betolatzairen dotrinan ez dela beti lege hau zintzoki betetzen:

Christiñau fiel gustia dago asco obligaduric euten devocinoea vioz gustiric Christoen Cruce Santeagaz dalaco gueure argia, gure [= 'gura'] izan ebelaco atan hil gu redimitearren gure pecatuen captiverioric....

Cruce Santearen señaleagayti gueure arerioetaric libradu gaguizuz jauna. Geure Jaungoicoa...

Santificadua içandila çure içena.. Etor vidi çure erreynua, equin bidi çure borondatea, nolan Ceruan alan lurrean. Emon eguiguçu egunean eguneango gure oguia, da parcatu eguiguçuz gure pecatuac, guc gueure çordunay parquetan deusteguna leguez...

...eta benditoa da çure sabeleco frutua Jesus

salve, esperança gueurea.... Ea bada Andra abogada gueurea, biortu eguizuz gueugana zeure vegui misericordiosoac, eta desterru au ygarota, eracusçu Jesus, zeure sabeleco Fruitu benditoa

Ordea, Mikoleta bilbotarrak ongi konplitzen zuen lege hau bere euskal ikasbide laburrean eskaintzen dizkigun adibide gutxien arabera:

Seuc seure prouechua ustiosu

Sein soyñeco asseguin dau ymini seure meçede orec?

Ori lisate valiz sure mesedeori persona sospechacoa...

...vaya ene errian esan daroena leguez...

Beuque eurac ossasun ori, segayti enessat oneyc dira egunac bear dogusanac esean sartu.

Eguia esateco, geyago eyten dot elduteco neure sereguinay

Or diño gure ama Çelestinac dagoala letre corumpiduric

Alper-alperic yminicosu /seure fuerçea ta isana

Besten vioza neugas darabilt /bestec darabil enea/nic nola berri sufri essasul seuc bere seure penea.

Beraz, adizkerekin konkordaturik azaltzen zaizkigun posesibo bihurkari edo anaforiko hauen erabileraren lekukotasun ugariok kontuan harturik, fenomeno honek gure hizkuntzan erro oso zaharrak dauzkala pentsa daiteke, azken mendeotan erabilera hori galduz joan bada ere, mendebaldean batez ere, ekialdean hirugarren pertsonetan bereizketak oraindik ondo bizirik dirauen arren.

Etimologiari dagokionez, litekeena da lehen pertsonarena, *neure*, honelako bilakaeratik sortua izatea: **ene burure > (e)ne (b)u(r)ure > neu(u)re*, singularreko bigarren pertsonakoa, *heure*, eta pluraleko lehen eta bigarren pertsonetakoak analogikoak izanik: *geure, zeure, zeuen*.

Hirugarren pertsonakoak, *bere-k, ber* hitzetik eratorriak (cfr. *bera, berbera, ber bat, ber gizona, ber gauza, ber denboran, ber-din...*) eta Leizarragaren garaitik behintzat, gaztelaniazko *su* 'beraren' eta bai 'beren' esangura zuenak Axularren denboran bazuen jadanik pluralerako aldaera berezitua, *beren*, gaur erabat hedatua. Era berean, eta geroago, beste posesiboen analogi eraginatik *beure* eta *beuren* sortu ziren, eta azken honetatik mendebaldeko mol-dadera ezaguna ere bai: *euren*.

Lazarragaren aditz sintetiko batzuen inguruan

Lazarragak, bere garaiko idazle guztien antzera, aditz sintetiko asko darabiltza, eta hortxe datza, gainera, haren euskararen zahartasunaren ezaugarri nabarmenetako bat. Ordea, mendeak guregana hurbildu ahala era horretako adizkerak urrituz joan dira, aditz perifrastikoen mesedetan.

Askotan euskal aditz sintetikoen jatorriaz susmatu izan dena egia bada, hots, azken buruan subjektu, objektu eta datiboen morfemak behialako elementu aske eta beregainak izan baziren, gaztelaniazko *me, te, le, la, lo, nos, os, las, los, les* izenordain-partikulak bezala, geroago aditz erroei itsatsirik geldituak, bistan da sistema horrek bere bukaera ukan zuela hiztunek elementu horien jatorrizko funtzioa ahanzi eta horiekin aditz sintetiko berriak mol-datzeari utzi ziotenean, sistema perifrastikora iraganez.

Izan dira idazle batzuk, Oihenarte adibidez, hizkuntza zaharraren mekanismo horretaz baliatuz, adizkera sintetiko bitxi batzuk erabili dituztenak (*darora, daitso, nigorra, donetsa...*), baina, oro har, hori, bere baitako herri-senetik barik, apropos eta jakite-bidetik sortuak izan zirela uste izan da, azken *donetsa* horrek berez *on detsa* beharko bailuke izan. Bestalde, duela ehun bat urte Koldo Eleizaldek landuriko bide horretatik abiatuak, batzuek sistima hori beste aditz askori aplikatu nahi izan zieten (Arriandiagak, Lauaxetak...). Halere, saio hauek guztiok nahita bultzatuak izan ziren, hizkuntzaren morfologiaren azterketatik artifizialki eta jakite-bidez asmatuak, garai hartako hiztunen berezko ahalmenean oinarritu gabe. Izan ere, zenbait adizkera sintetiko solteren lekukotasun bakarra ikusita, alde batetik zail egiten da pen-

tsatzea nola gorde zitzaketen hiztunek hain luzaro horrelako forma defektibo urriak, paradigma osoagorik jakin gabe. Baina bestetik, ulergaitza da, halaber, elkarren berri izan ez arren eta Euskal Herriaren punta banatan bizi izanik, Lazarragak eta Oihenartek, adibidez, aditz berberen era sintetiko bitxiok jokatzea.

Hori dela eta, Lazarragaren etsenplu berriok ikusirik, susmatzekoa da ez ote zen morfema horien funtzioa bizirik eta indarrean egon euskaldun arruntan senean orain arte uste genuen baino beranduagora arte. Izan ere, Oihenartek euskarari buruz egindako gogoetak egin gabe ere –kontuan izan bere *Notitia*-ren hasieran egindako euskal gramatikaren laburpena–, badirudi, nolabait, Lazarragak berak ere bazekiela oraindik elementu horiez baliatzen, edo bera baino lehentxoagokoak bederen horiez baliatuak zirela, eta berak geroxeago errepikatu.

Susmo honen iturria *ifini*, *igaro* eta *jarri* aditzen konjugazio bitxian ageri zaigu. Larrearraren obra hau aurkitu baino lehen, nik dakidala, *ipini-ifiñi*-ren adizkera sintetiko bi ezagutzen genituen, 1596ko RySetan aurkituak: *Daminda sabela betez betez, na[h]iz batsez, na[h]iz satsez* (RyS, 99) eta *Dienean ereztuna, ifink txirkandea* (RyS, 192). Ordea, Joseba Lakarrak ederki ohartarazi digunez, mordo ageri da testu berri honetan: *dafinçu, dafinela, difinçu, jafindaçu nafinçu, dafinquet...* Hauetan, gainera, *dafinçu* [zuk] eta *difinçu* [hark zuri] arteko bereizketa egiten da, mendebalean *dagizun /degizun* eta *dakik /dekik* modukoetan, eta ekialdean *dezazun /diezazun* gisako aldaeretan kidedasun nabarmenak dauzkana. Harritzekoa da, edonola ere, gaurko euskara bizian inon arrastorik utzi ez duten adizkera horiek testuotan horrenbesteko aberastasun eta ugaritasunaz agertzea.

Gauza bera esan daiteke Joseba Lakarrak seinalatu digun *naygara* formaz ere (*laztan enea naygara... / zure atean arteti...* koadernoaren bukaeran Maria Estibaliz Sasiolakoari eginiko poeman). Bagenuen, horren aurretik, aditz honen beste adibide pare bat ere (*“diragan artean ez denporagaiti gatxik esan”* atsotitzean eta *Bergara: zeinatu eta [h]aigara*) esaeran eta oraingo forma berriak aditz horrek behiala ukan zuen konjugazioaren beste oihartzun bat eskaintzen digu. Hala eta guztiz ere, gaurdaino bizirik heldu zaizkigun ohiko aditz trinkoekin konparatuz gero (*dator, dago, dabil, datza, doa* < **daoa* ...), bitxia da aditzaren hasierako *i* bokala kontserbatzea, espero izatekoa **nagara* edo **naraga* gisako zerbait izanik.

Gaur erroaren hasierako *i*-hori galtzen ez duten aditzak (*dihardu, diraki, dirau, dirudi, diro, dio...*) batek ere ez du lehen ez bigarren pertsonako objekturik, eta lehenbiziko hirurak deponentetzat jo daitezke, iragankorrak izan arren ez baitute inolako objekturik onartzen. Litekeena da, gainera, *daukaten i*-antzinako datibo marka bat izatea. Alde horretatik *naigara* horrek, *na*-lehen pertsonako izenorde-aurrizkia oso-osorik, hasierako *i*-kendu barik, (edo *ai* diptongo zaharra *a* gisa sinpletzera iragan gabe), azken aldian analogiaz sorturiko forma dela susmatzera garamatza, oraindik hiztunen kontzientzian horren erabilera librea eta baliagarria hain urrun ez zegoela irado-kiz.

Berdin gertatzen zaigu *zarriz* formarekin ere: *acorda çatez / oy eta çarriz contuan* (1199r) *zoaz da zarriz / infernuaren çoruan* (1199v). Testuinguruagatik garbi dago *jarri*-ren forma sintetiko baten aurrean gaudela. Halere, euskaraz errozko *-i* hori gordetzen duten aditz trinko bakarrek (*diraki* eta *diru-*

di)¹², hori nahitaez egiten dute, *i* organikoa baita, azken jarrera horretan hizkuntzak ez bailuke **dirak* edo **dirud* gisakorik onartuko. *Jarri*-tik, hortaz, **zarz* moduko zerbeit atera beharko zatekeen, egiazki ageri zaigun *zarriz* horren ordez.

Hemen baina, garbi dago beste lege bat aplikatu dela, hots, hitz erroa silaba bakarrera laburturik gelditzen denean, ondoko elementua ere gordetze-ko agintzen duena, horren esangura edo multzo elkartua errazago identifikatzeko. Hortxe dugu *hasiera*, *hezitzaile*, *etsipena* bezalako etsenpluak, eratorriaren abiapuntuko hitza luzeagoa denean betetzen ez dena: *ederrespen*, *onesgarri* adibidez. Horrek pentsaraz lezake *zarriz* horren kasuan ere, ez ote gauden azken orduan moldaturiko adizkera sintetiko baten aurrean, herriak hori sortzeko oraindik ahalmena zuenean asmatua. Hau guztiau baina, Lazarraga baino lehenagoko testuek ez bestek argi liezagukete.

Erabat interesgarria da, halaber, autoreak behin bederen darabilen *irten*-en adizkera sintetikoa ("*calera nirteanean*", hots, 'kalera irten nintzanean' obraren azken aurreko orrialdean)¹³. Gauza jakina denez, mendebaldeko *urten* aditzak baditu erdi- eta ekialdean *erten* eta *irten* aldakiak, guztiak, Mitxelena uste zuenez, segur aski behialako **eurten* < **e(g)orten* < *egorri* 'igorri' batetik sortuak. Mendebaldean konjugazioa beti *ukan*-ekin egiten da: *urten dot*, eta halaxe darabil Lazarragak berak ere. Ekialderago, ordea, *erten/irten naiz* gisako formak izaten dira nagusi. Susmatzekoa da, beraz, aditz honen jatorrizko erregimena *izan*-ekin izan zitekeela, hots, iragangaitz, eta adizkera sintetikoek hor argia eskaini liezagukete. Gogoan izan adibidez, mendebalde-erdialdeko gaurko *jarraitzen deuto* / *jarraitzen dio*-ren forma sintetiko zaharra *darraio* dela, hots, iragangaitza, eta erregimen hori da ekialdeko euskalkietan gaur arte kontserbatua: *jarraikitzen zaio*.

Zoritarrez, *nirtean* iraganaldiko forma dugu eta holakoetan era iragan-korrek eta iragangaitzak berdindu egiten dira, kasu honetan bezala, erroaren hasieran *r* bat dagoenean. Izan ere, *nentorren* eta *nekarren*, *nenbilen* eta *nerabilen*, *nengoen* eta *nekien*, *nindoan* eta *neraman* formetan iragangaitzetan beti *-n-* bana agertzen bada ere, hori ezinezkoa da *jarraiki* modukoetan, hizkuntzak ez bailuke onartuko **nenraion* gisako kontsonante-multzorik, *nerraion* baizik. Beraz, orainaldiko beste formarik edo iraganeko pluraleko adizkeraren bat gehiago agertu arte, dudatan segitu beharko dugu, *nirtean* hori, subjektu ageririk ezaz, berdin egon baitaiteke ergatiboeko zein absolutupeko erregimenean.

Aurrekaririk gabekoa eta berak asmatua bada ere, aipagarria dateke Lauaxetak behin behintzat era sintetikoan erabili zuela *urten* aditza: *txakurtxubak durten*, hots, era iragan korrez. Agian egunen baten zoriak eskainiko digun beste testuren batek argituko digu orainaldiko erak **darte*, **derte*, **dirte*, **dairte* ala **daurte* gisakoak ote ziren eta absolutu ala ergatiboekoak ote gertu¹⁴.

¹² Horiez gainera, bada, noski, *daugi*, iparraldean ongi dokumentatua, baina horren bukaera, *-i* barik, *-n* da (jaugin) , eta, hortaz, ez da kasu bera.

¹³ P. Urkizuren edizioan *kalera nintzanean* transkribatu da pasarte hau, baina Lazarragak tz inoiz ez duela tc idazten kontuan izan eta grafia aurreko orrialdeko *irteneban* hitzarenarekin konparatuz gero, garbi dago *nirteanean* irakurri behar dela.

¹⁴ *Urten/irten/irten* aditzaren etimologiak berak ere *nirtean* adizkera sintetiko hori azken ordukoa dela pentsarazten digu. Izan ere, etimoa *egorri* > *egorten* baldin bada, ez da logikoa forma inesibo era-

Ez dira horiek, halere, Lazarragaren testuan aurki ditzakegun adizkera sintetiko ezohiko bakarrak. Oso ugari dira, garai hartako beste autoreen lanetan ere ageri diren *erakutsi*, *entzun*¹⁵, *ezagutu*, *ikusi*, *etzan*, *eratzan* etabarren adizkera ugariez gainera 1153v-n *njdocaçu* ‘atera nazazu’ <*idoki*>, berak *ydogui* gisa erabilia (*beguiratu бага çuc nj nor naxan / salvo çu çeurori nungo çarean / njdocaçu nagoen penarean*), eta 1159v-ko bigarren lerroko *baleçarçue* <*ezarri*> ere (*Ylinti gachec pada decala / an jaiaiten dan bareea (?) / astean beyn baleçarçue / aus oça ta brasea*), orain arte ezezagunak.

Lehenerako bagenuen Oihenarteren *zedokan* forma: *Etxoilloak basoilloa zedokan* (172. atsoitza), baina bigarrenarenik ez da halakorik aurkitu Leizarragaren *ezarrak*, RySko *ezark* eta Mikoletaren *ezarzu* bezalako agintaldiko erak izan ezik, baina hauek aditz erroaren eta ondoko laguntzailearen arteko elkartze laburtutik sortu berriak izan zitezkeelako duda sortarazten dute beti. Lekukotasun urriegiak, egia esan, eta horietatik abiatuta, berdin pentsa daiteke egileak bere lehenagokoengandik belarriz jasoriko ondare lexikal zaharretik gorde eta atereak zituela zein berberak sortuak zirela, aditz sintetikoak osatzeko moduz oraindik kontziente zelako.

Edozein kasutan, heldu zaizkigun aditz iragankor hauen formak azterturik, bada gauza nabarmen bat: gehienek objektua singularrean daukate, eta *n(a)-*, *ha-*, *d(a)-*, *z(e)-* edo *l(e)-* aurrizkiekin osaturik aurkitzen ditugu, pluralerako, *-z-*, *-tza-*, *-tzi-* edo *-zki-*rik gabe. Eskuarki uste denez, objektu pluralaren marka aditzean nahitaez eranstea beranduko fenomeno baldin bada, -gogoan ukan Lazarragaren denboran eskualde horretan behintzat oraindik aukerakoa zela marka hori ezartzea edo ez ezartzea- erraz uler daiteke ezauzgarri horri derrigorrezkoa bihurtzen zen heinean, are zailagoa egingo zitzaie-la hitzunei aditz trinkoak osatzea, eta ondorioz, horiek pixkanaka baztertuz joan zitezkeen, pluralezko objektua zeukaten adizkeretatik hasita, erraztasunagatik forma perifrastikoetara lerratzeko¹⁶. Hortaz, bi fenomenoren elkareragina genuke, bataren garaipenak bestearen amilera ekarriz.

Alde honetatik, gogoan izan behar dugu aditz pluripertsonalak dauzkaten beste hizkuntza batzuetan, georgieraz adibidez, gaur arte posible dela erro arrotzeko hitzak aditzetan era honetara integratzea: *es c’igni gvinteresebs* ‘liburu hori interesatzen zaigu’, *gvinteresebs* adizkera atalka honela banaturik: *gv-*

torri berri horretatik adizkera trinko zaharrik izatea, eta izatekotan, logikoagoa litzateke **neurtean* itxurakoa aurkitzea, eta ez aditz horren eboluzio modernoenetik atera. Edonola ere, Oihenartek bere poemetan *nigorra* ‘igortzen nau’ moduko forma darabil, segur aski berak asmatua, analogiaz aditz forma berrienaren eredia oinarri harturik, eta, jakina, bertsoaren errimarako egokitua, espero genezakeen **nagor*-en ordez.

¹⁵ Ironikoa bezain kasuala da Olabide jesuitak Bibliaren itzulpenean Mat. 13, 43 pasartea euskaratzeko egin zuen itzulpen xelebrean asmatu zuen inperatiboa sintetikoa *Entzuteko belarridunak bentzu*, berak jakin gabe beste arabar batek mende batzuk lehenago ere egiazki erabilia izatea: *Bençu munduac ene deadarra* (1185v, bazterrean).

¹⁶ Fenomeno berbera ikus dezakegu geure egunotan ere **edin* eta **ezan* aditz laguntzaileekin subjuntiboko edo potentzialeko zenbait forma korapilatsurekin (*etor zekizkigun, joan gakizkiok, eman diezazkieten, eros zeniezazkietete...*) ahozko hizkuntzan erabateko gainbeheran, horien ordez -tzea, -tzeko inpersonalak edota -rengana eta *ahal izan-ukan*-en adizkerak erabiliz (*etortzeko, haiengana joan ahal gara, emateko, erosi ahal zenizkieten*). Arrazoi berberagatik, *izan*-en lehen eta bigarren pertsonako adizkera datibodunak, pluralezkoak batez ere, galtzen ari zaizkigu (*natzaiio, zatzaizkidate, gintzaizkizuen...*). Fenomeno hau are larriago egin du *zu* pertsona, gaur eskuarki singularrekotzat hartua, berez pluralerako bigarren pertsona izateak, horregatik nahitaez plural-marka eraman beharrekoa gertatuz: *etorri zintzaizkigun, ikusi zintugun, eraman zaitzaket...*

‘guri’ *interes* ‘aditz erroa’ –*eb*– ‘orainaldiaren ezaugarria’, –*s* ‘hirugarren pertsonako subjektuaren ezaugarria’.

Hortaz, euskaraz ere aditz trinkoak sortzeko joera honek aski berandura arte iraun duela frogatuz gero, berriro kontsideratu beharko genuke, adizkera sintetikoak dauzkatelako, orain arte geure lexikoaren ondare patrimonial zaharrekotzat jo ditugun aditz batzuk egiazki ez ote ditugun inguruko hizkuntzetatik mailegatuak izan. Jadanik etimo erromanikoak proposatu izan dira *ipini* (*in venire*) edo *ezagutu* (*sabutu*) modukoetarako, eta bide horretatik agian *ekarri*-ren erroak bai inguruko hizkuntzetan eta bai gurean ere hainbat eratorri (*carro, acarrear, car, carrier, charue, garraiatu, garraio...*) eman dituen *kar* hitz zeltiko ezagunean eduki lezake etorkia, behialako aditz zaharren hasierako *e*- aurrizkiaz eta bukaerako –*i* (kontsonantez amaitzen ziren erroen ondoan) edota –**ni* > –*n* (bokalez bukatuetan) atzizkiez osaturik. Horrek azal lezake –*n* bukaera duten aditz zahar batzuen gerundioetan agertzen den –*i*– hori: *emaiten, iragaiten, izaiten, jasaiten...*¹⁷.

Bide beretik, *e-torr-i*, azken buruan, latinezko *torn*-errotik heldua izan liteke (cf. *torno, tornar, retornar, tour, turista...*), azken –*n* hori, aurreko kontsonantearen eraginez galdua, euskal eskema zaharrean *tor* ondoan –*i* ezarri behar baitzen, –*ni* bukaera bokalezko erroei eranstekoa zatekeenez gero.

LABURPENEA

Joan Perez Lazarragakoaren idazlan aurkitu berriak lekukotasun franko ematen ditu Arabaren ipar-ekialdean XVI. mendean egiten zen euskarari buruz. Berez mendebaldeko euskalkiarekin hertsiki lotuta bada ere, Barrundiako hizkeran, arkaismo ugarietz gainera, ekialdeko euskalkien ezaugarri asko ere agertzen dira, bataren eta besteen arteko zubi gisa. Gaurko euskararen soilki erakusle, adverbio eta partizipioetan agertzen zaigun –*xe* atzizkia autore honek izenekin ere erabiltzen du, horren jatorriaren argibidea emanez. Arabar idazle honek eskuarki Linschmann-Aresti legea deitzen dena oso ongi betetzen du, eta ene/neure, haren/bere posesiboen artean bereizketa egiten, bigarrenak beti bihurkari balioaz. Aditz sintetiko ugari agertzen dira idazle honen lanean, batzuk oso bitxiak eta lehen aldiz dokumentatuak. Horren azterketak, eta bere garaian aditz konjugatuetan objektu pluralaren marka jartzea oraindik aukerakoa zela ikusteak, euskal aditz batzuen jatorriaz eta pertsona anitzeko adizkera sintetikoen aspaldiko gainbeheraz ere gogoeta egiteko materialak eskaintzen dizkigute.

¹⁷ Dena den, honelakoetan azken silabako bokal arteko –*n*–a galdu dela onarturik ere, fenomeno hau hobeki aztertu beharko litzateke, ez baita erabat erregularra. Analogiak, noski, *joiten, jaiten* (<*joeraiten* (<*ero, erboentzun, erantzun* bezalakoetan **entzuiten* > *entzuten* bilakatzea, –*ui*– diptongoak euskaraz duen urritasunagatik, baina badira beste batzuk, *jan, edan* adibidez, sekula santan *i*-rik agertzen ez dutenak. *Jan*-en kasuan, noski, pentsa daiteke *jo*-ren *jaiten* formarekin ez nahasteko gertatzen zela, eta *jan/edan* bikoteak, analogiaz, *jaten/edaten* izan beharko zuela aldean, baina halere, hor dago *etzan* ere, eskuarki *etzaten*, eta ez **etzaiten*, ematen duena. Adizetatik eratorritako beste zenbait hitzetan ere (*egoitza...*) agertzen den *i* horrek toponimo batzuekin izan dezakeen loturarako, ikus Patxi Salaberri: “Euskal topoponimiaz mintzo (Nafarroakoaz bereziki)” in *Fon-tes Linguae Vasconum*, 74. zkia. 1997, 31.orr.

RESUMEN

La obra de Joan Perez de Lazarraga, recientemente hallada, nos ofrece abundantes testimonios sobre la lengua vasca hablada en el siglo XVI en el nordeste de Álava. Aunque se trata de una variedad estrechamente ligada al dialecto occidental, en el habla de la Barrundia, además de numerosísimos arcaísmos, encontramos también muchos elementos comunes a los dialectos orientales, teniendo la posición de puente entre todos ellos. Este autor utiliza el sufijo *-xe*, actualmente empleado exclusivamente en los demostrativos, adverbios y participios, también en los sustantivos, con lo que nos ofrece una clara pista sobre su origen. También cumple escrupulosamente la denominada ley Linschmann-Aresti en el empleo de los posesivos *neure*, *bere*, etc., como formas reflexivas de *ene*, *haren*, etc. Los numerosos y curiosos ejemplos de verbos sintéticos, algunos de ellos documentados por vez primera, que aparecen a lo largo de su obra, así como que en su tiempo fuesen aún optativas las marcas de objeto plural en las formas verbales, sugieren algunas ideas sobre el posible origen de estos verbos vascos, y podrían explicar el continuo retroceso que han conocido las formas sintéticas pluripersonales durante estos últimos siglos.

RÉSUMÉ

L'œuvre de Joan Perez de Lazarraga, récemment découverte, nous dévoile de nombreux témoignages sur la langue basque parlée au XVI^e siècle au nord ouest d'Álava. Quoiqu'il s'agisse d'une variété étroitement liée au dialecte occidental, dans la langue de la Barrundia nous trouvons non seulement d'innombrables archaïsmes, mais aussi de très nombreux éléments communs aux dialectes orientaux; elle sert donc de point d'union entre eux. Cet auteur utilise le suffixe *-xe*, qui actuellement n'est utilisé que dans les démonstratifs, les adverbies et les participes, ainsi que dans les substantifs, avec lesquels il nous donne une idée claire sur son origine. Il suit également de façon scrupuleuse la loi appelée Linschmann-Aresti sur l'emploi des possessifs *neure*, *bere*, etc. comme des formes réflexives de *ene*, *haren*, etc. Les exemples de verbes synthétiques, par ailleurs très nombreux et curieux –certains d'entre eux sont documentés pour la première fois–, qui apparaissent dans son œuvre, et le fait qu'à cette époque les marques de l'objet pluriel étaient encore optatives dans les formes verbales, suggèrent certaines idées quant à l'origine de quelques verbes basques, et pourraient même expliquer le retour en arrière constant des formes synthétiques pluripersonnelles pendant ces derniers siècles.

ABSTRACT

The recently discovered work of Joan Perez de Lazarraga provides a great deal of information concerning the Basque language spoken in the northeast of Álava in the XVI century. Although this dialect is closely related to the Western dialect, the speech of Barrundia, in addition to numerous archaisms, also contains many elements in common with Eastern dialects, representing a bridge between these. The author uses the suffix *-xe*, now only used in demonstratives, adverbs and participles, in nouns as well, providing us with a clear clue as to his origins. He also scrupulously complies with the so-called Linschmann-Aresti law in his use of the possessives *neure*, *bere*, etc. as reflexive forms of *ene*, *haren*, etc. The numerous and peculiar examples of synthetic verbs appearing throughout his work, some documented for the first time, together with the fact that in his day the marks of plural objects were still optional in verbal forms, suggest ideas regarding the origin of some Basque verbs and could explain the continuous decline of multipersonal synthetic forms over recent centuries.